

zarekin ; proiektu konkretuentzako diru laguntza publikoak (komertzializazio sareak adibidez) eta kostalde-barnealde elkartasun diru laguntzak (uraren kalitatea edota mendialdeko bazterrak zaintzeko).

Egitasmoa presentatu ondoren eztabaida hasi da, horren oinarrian den laborantza ereduari buruz (ekologikoa eta baserritarra, neoliberalisoaren logikaren kontrakoa). Sistema produktibistaren zentzurik gabeko logika esplikatzeko, sindikalistek adibide bat eman dute. Hala nola, esportatzeko artoa landatzen da hemen, kabalentzako belarra inportatu behar den bitartean. Zergaitik ekoizpenak ez aldatu, garraio kutsakorra saihestuz ? Ekoizpenetik kontsumorako bideak laburtu behar dira, zonalde desberdinen artean elkarlan antolatuz. Ageri denez laborantza ganbara alterna-

tiboaren proiektuak hainbat xantier ireki eta aktualitatezko arazoak ere hunkitzen ditu (garraioak, kutsadura, klima aldaketa, kalitatezko elikadura...).

Estatuarekiko kontaktuen berri emana izan da bestalde. Nahiz eta hemengo klase politiko eta jendartearen gehien-goia laborantza ganbararen alde izan, blokaja politikoak irauten du. ELB-ko ordezkariak azpimarratu dute laborantza ganbara alternatiboa ez dutela horiek bakarrik eraikiko. Beren aldetik luze eta sakon egituraren ibilmolde eta funtzioak gogoetatu dituzte baina hirietako jendearen beharrak kontutan hartu eta haien inplikazioa lortu nahi dituzte. Laborantza ganbara ez da soilik laborarien afera ! Kontsumitzaileen eta ingurumena zaintzen duten elkarteak ere partaide izanen dira, logika korporatista erabat arbuatzen den egitasmo honetan.

Duela 30 urte ikastolen sortzearekin bota zen desafioa bezain ausarta da orainkoa.

Kostalde/barnealde, Iparralde/Hegoalde, Euskal Herria/Frantziaren arteko harremanak landuko dira elkartasun sare bat osatzeko.

2004ko udazkenean abiatuko den laborantza ganbara alternatiboa den afera da eta bereziki mugimendu altermundialistan kokatzen direnak. Denen inplikazioa behar du. Laborariak motor lana egingen dute baina ez dezagun dinamika soilik laborarien bizkarrean utzi !

Harremanak

ELB sindikata
Renaud karrika 1
64220 Donibane Garazi
05 59 37 21 08
syndicat.elb@wanadoo.fr

ZKAO (Zerbitzuen komertzioari buruzko akordio orokorra) edo AGCS delakotik nola atera ?

Tarnose eta Mugerreko hautetsi batzuek eta Euskal Herriko ATTAC-eko kide batzuek kudeaturiko lankia.

Akordio honen iturria orotarazten du ATTAC-eko Chantal Boonek : 1999an GATT erakundea Komertzio munduko erakundea (OMC) bilakatzen da eta zerbitzu publikoak ordu arte soilik merkantziak biltzen zituen zerrendari gehitzen dizkio : salgai bihurtzen ditu. Nola egin ? Zatika. Zatikatuak izanen dira eta errentagarritasun handiena dutenak liberalizatuak izanen dira, Estatuak, diru gutxien ematen eta pisu gehien dituztenak atxikiko dituelarik. Adibidez, arlo pribatuak burdin bidezko trafikoa bereganatuko luke, azpiegiturak Estatuaren esku utzirik. Zer gertatuko da Estatu batek atzeraezina omen den prozesu honetatik atera nahi badu ? Zerbitzu publikoko beste atal baten privatizazioa ekarri beharko du negoziazio mahaira edota ordaindu. Kaliforniako adibidea hor dugu : argindarraren kudeaketa bereganatu nahi du berriz, etengabeko mozturak ekiditzeko asmoz. Horren truk presontegi eta hezkuntzaren kudeaketa arlo pribatuari utzi beharko

dio.

Nork zer saltzeko gaitasuna ba ote du ? Europar Batasunaren esku daude ura, energia (Bartzelonako akordioak), garraioak eta telekomunikazioak. Estatu kideek eta EB-k eskuduntza partikatuak dituzte osasun, hezkuntza eta kultura alorretan. Jokoan diren dirutzak ikaragarriak dira : uraren merkatua 1 000 miliar dolarekoa da. Hezkuntzarena berriz, 2 000 miliar dolarekoa.

Uraren merkatuari doakionez, Jean Marc Lespade, eskualde honetan Mugerreko herriarekin batera, ZKAOtik kanpo deklaratu den Tarnoseko hautetsiak kontratuak ontsa gaketuak direla salatzen du. Bere herriak Lyonnaise des

eaux enpresarekin duen kontratua 2010 urte arte ezin da hautsi. Alor pribatuarekin kontratu bat haustera menturatu den Castres-en adibidea aipatzen du. Jarrailu beharreko afera hau mugarri juridiko garrantzitsua bihur daiteke.

Véronique Lanquetin-Beauchamp, Mugerreko oposizioko hautetsiak ZKAO-ren ondorioei buruz jendeak nahiz hautetsiek duten ezagutza eskasa deitoratzen du. 2003ko uztailan tokiko hautetsiei luzatu zien deialdiak ez du segidarik izan. ZKAOtik kanpo deklaratu daitezkeen, herri eta lurralde kolektibitatei buruz kanpaina bat antolatzea aipatua izan da. Halaber beste proposamen batzuk ere atera dira : Eskualdeetako presidenteei jarrera bat hartzea galdegin, Baiona erreferenduma bat antolatu edota Seignanx-eko geriza sozialaren erresistentzia komitearen ildotik, ekimen kolektiboa abiatu.

Liburu eta helbideak :

www.urfig.org, Raoul Marc Jennar-en testuak.

Agnès Bertrand eta Laurence Kalafadidès, *OMC, le pouvoir invisible*, Fayard, 2002.

Louis Weber, *OMC, AGCS : Vers le privatisation de la société*, Syllepse, 2003.

Attac, *Remettre l'OMC à sa place*, Mille et une nuits, 2001.

